

Mondragon Unibertsitateko ordezkariak 130 ikastetxe bisitatu dituzte, ikasleak hartzeko

2009/05/04

Aurten ere Mondragon Unibertsitateak sekulako ahalegina egin du ikasleak hartzeko. Helburu hori gogoan, eta iragan azaroan hasita, gure ordezkariak 130 ikastetxe bisitatu dituzte Euskal Herrian.

Kenduta 50 ikastetxe, non bertako orientatzaileek eman baitituzte azalpenak, gainerakoetan MUko ordezkariak elkartu egin dira bertako ikasleekin, eta haien aurrean egin dituzte ikasketen azalpenak. Tarte horiek, gainera, aprobetxatu dituzte ikasleen galderei erantzuteko. Hezkuntza azokak

Ikastetxez ikastetxe ibiltzeaz gain, MUko ordezkariak zazpi azokatan hartu dute parte, denak ere hezkuntzarekin zerikusia dutenak:

- * Unitour, Gasteizen eta Bilbon.
- * Euskal Liburu eta Diskoen Azoka, Durangon.
- * Salón de Formación, Iruñean.
- * Gela 2009, Gasteizen.
- * Educa, Donostian.
- * Prestik, Bilbon.

Kanpainako arduradunek kalkulatu dutenez, sei hilabete hauetan MUko ordezkariak elkartu dira 2.844 ikasle eta gurasorekin ikastetxeetan. Denek erakutsi dute jakin mina hiru fakultate hauetan eskaintzen diren ikasketen gainean.

